

Perspectivas

en Derecho y Genoma Humano

12. zenbakia, 2008ko abendua

Zuzenbide eta Giza Genomako BBVA Fundazioa - Bizkaiko Foru Aldundia Unibertsitate arteko (DU, EHU) Katedra

Zuzendaria: Carlos María Romeo Casabona dk. irak., Zuzenbideko eta Medikuntzako doktorea eta honoris causa doktorea

Boletin hau ingelesez eta gaztelaniaz ere argitaratzen da

Iritzia

Biozuzenbidearen eta Bioetikaren egungo egoera

Bizitzaren eta osasunaren zientziak hainbat galdera planteatzen ari dira euren aplikazioaren balioaz eta metodologiaz joan den mendearen bigarren erditik aurrera, osasunari lotutako prestazioetan jakintza areagotzea lortzeko eta aurrera pausak emateko. Baina, batez ere, sarri askotan gaixotasunak sendatzeko eta prebenitzeko lortzen diren berrikuntzek, edo, areago, ugaltzeko ahalmenak edo beste ahalmen fisiko eta mental batzuk hobetzeak edo aldatzeak zalantzan murgiltzen gaituzte. Antzeko jakintza eta teknikak (bioteknologiak) aplikatu dira beste izaki bizidun batzuekiko ere: animalia, landare eta mikroorganismoetan. Horretara, inguru berriak agertu zaizkio gizakiari, bereziki konplexuak gai garrantzitsuetan, eta bere balio sistema tradizionalarekin erkatuta, ez du beti erantzun eraginkorrik aurkitu.

Horrela, joan den mendeko hirurogeita hamarretan diskurtso metodologiko bat sortu zen, guztiz berria ez bazen ere, ia erabili gabea zena; diziplina berri bat ekarriko zuen, hasiera batetik oso erakargarria izango zena: Bioetika. Izan ere, Bioetika, gauza guztien gaitetik, Etika Aplikatua da, bizitzaren eta osasunaren zientzietara bideratua (batez ere Medikuntzara eta Biologiara). Hala ere, Bioetikak dakarren berritasuna, goian aipatu dugun bezala, metodologiari dagokio: diziplina arteko diskurtsoari, hau da, beste diziplina askotatik eskaintzen diren ikuspuntu desberdin eta osagarrietatik gatazkari ekiteko moduari: Medikuntzatik (ikerketak eta klinika arloetan), Biologiatik (alderdi zientifiko eta teknikoetan), Etikatik, Teologiatik, Filosofiatik, Zuzenbidetik, Ekonomiatik, Soziologiatik, etab. Emaitza ikuspegi desberdin horiek bateratzea da, bakarka kontuan hartuta, ikuspegi eta irtenbide alde bakarrekoak eta osatu gabeak ekarriko bailituzke. Metodologia aldetik hitz eginda ez da, hortaz, ikuspegi batura hutsa, integrazioa lortzea baino, horrek ikuspegi berriak zabalduko dituelako, ikuspuntu guztiak jasotzen dituzten erantzunak eta xehetasunetan aberatsagoak.

Ia aldi berean, baina seguru asko Bioetikaren garapenak eraginda, eta, jakina, aplikazioei,

zientzietako aurrerakuntzei eta horretan inplikaturik dauden teknologiei erantzun egokiak emateko gizartearen eskakizunak bultzatuta, Zuzenbidea haren aztergai diren gaiak arreta handiagoa eskaintzen hasi zen, giza eskubideen teoria eta garapenetatik nazioarteko esparruan sortzen ari ziren ekarpenik berrienak erreferentzia gisa harturik.

Ordutik hona, parez pare eta sarritan diziplina arteko ikuspegi horrekin, Bioetika eta Biozuzenbidea etengabe garatu dira, eta jarduera zabalago sortu da bitartekotan eta formatuetan. Gaur egun ugari dira argitaratu diren publikazioak eta dokumentuak, biltzar eta batzar pila izan da, espezializazio ikastaroak eta unibertsitateko beste titulu batzuk sortu dira, bioetikako batzordeak osatu dira era askotako funtzioekin; azken batean, legegileek eta nazioarteko erakundeek garrantzi handiko legeak, aldarrikapenak eta hitzarmenak onartu dituzte.

Ez da harritzekoa urteotan (1984an lehenengoz) pentsamendu bioetikoaren eta juridikoaren alderik esanguratsuenak era oso, didaktiko eta zorrotzean sistematizatu eta interesatuen eta oro har jendearen eskura jarri nahi izan dituzten lanak sortu izana. Horrelaxe sortu dira Bioetikako Entziklopediak: talde-lanean, diziplina artean eginak dira eta oro har askotariko lanak, jakite horretara guztira erraz eta erosotasunez jotzea helburu dutenak. Gaur egun, badakigu hainbat herrialdetan eta hizkuntzetan (ingelesez, frantsesez, alemanez eta italieraz) daudela halako lanak. Asmorik handieneko helburuak izan dituztenak, luzeenak (denak dira mila orritik gorakoak, eurentako batek hiru mila ere baditu) eta zabal-kunderik handienekoak aipa ditzagun:

- *Encyclopedia of Bioethics (AEB)*, Warren T. Reich (arg.) 4 bol., 1984; 6 bol., 2. arg., 1995.
- *Encyclopedia of Bioethics (AEB)*, Stephen G. Post, 5 bol., Argitaratzaile burua, 3. arg., 2003.
- *Dizionario de Bioetica (Italia)*, Salvino Leone / Salvatore Privitera, 1994.

- *Lexikon der Bioethik (Alemania)*, Wilhelm Korff / Lutwin Beck / Paul Mikat, 1998.
- *Nouvelle Encyclopédie de Bioéthique (Belgika)*, Gilbert Hottois eta Jean-Nöel Missa (arg.), De Boeck Université, Brusela, 2001.

Halako lan baten falta sumatu da gaztelaniaz eta ez da ondo ulertzen hori, Espainian eta Latinoamerikan diziplina horrek goi maila lortu duela eta espainierazko irakurle potentzialen kopurua oso handia delako.

Diskurtsoei begira zein puntutan gauden; gairik eztabaidatuena eta sortzen ari diren arazoak zeintzuk izan diren edo diren; zein balio, ondare edo eskubide inplikaturik geratu diren edo alderatu diren; eta, azkenik, Bioetikaren esparrutik zein irtenbide proposatu diren eta zein gizarte jarrera bihurtu diren arau juridiko edo zein zehaztu diren erabaki judizial erabakigarrietan ikustea da katedraren proiektu berriak lortu nahi duena. Hauxe litzateke proiektua: Biozuzenbideko eta Bioetikako Entziklopedia, Deustuko Unibertsitatean eta Euskal Herriko Unibertsitatean dagoen BBVA Fundazioak eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrak sortua eta bultzatua. Asmo handiko proiektu hau babestu dute euren laguntzarekin Roche Institutuak eta Granadako Comares argitaletxeak.

Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrako kideak, Erredakzio Batzordea eratuta, arduratu dira Entziklopedian jaso behar ziren hitzak identifikatzeaz, hitz bakoitzak izan behar zuen ikuspegia (zientifikoa, etikoa edo juridikoa, edo batzuk batera, dena den autore desberdinek emana) zein zen erabakitzeaz. Azkenean berrehun hitz aukeratu ziren, baita beste hogeita hamar bat sarrera gehiago ere bidaltze-oharretan. Horieta batzuk lanean lagundu diguten autoreek iradokita gehitu —edo ezabatu— ziren. Biobankuak, biometria, ama zelula, farmakogenomika, banakako medikuntza, xenotransplantea bezalako hitzek ematen digute az-

ken garapenen berri; abortua, osasun laguntza, eutanasia, organoen transplantea bezalakoek adierazten dute eztabaidan aspaldikoak diren gaiak oraindik interesgarriak direla eta ikuspegi berriak dituztela; etika batzorde, Bioetikako prestakuntza, Europako Batzordea, arreta, printzipialismoa, arriskua bezalako beste batzuek Biozuzenbidearen eta Bioetikaren inguruko ikuspegi desberdinak iradokitzen dizkigute.

Autoreak adituak dira lantzeko eman zaizkien gaietan (asko ezaguera zabalagoak eta sakonagoak dituztenak, gainera). Entziklopediak ahalik eta parte hartzerik gehien izan zezan, autore bakoitzari hitz bakar batez arduratzeko eskatu zitzaion (hitz zientifiko edo tekniko batzuen kasuan izan ezik, laburrak izateagatik eta ahaidetasunagatik laguntzaile bakar bati ema-

tea egokiago ikusten zelako). Autore bakoitza emandako hitzaren arduradun bakarra izatea ere erabaki zen (ez dago egilekiderik), horretara bere espezialitatea fideltasun osoz islatu zezan. Lana Latinoamerikan ezaguna izateko ez ezik, eskualdean egiten ari diren ekarpenei garrantzia aitortzeko ere, hasiera batetik hainbat eta hainbat herrialdeetako laguntzaile kopuru esanguratsua eta koalifikatua eduki nahi izan dugu. Argentina, Brasil, Kolonbia, Kuba, Costa Rica, Txile, Guatemala, Mexiko, Peru, Uruguai eta auzoko dugun Portugal bezalako herrialdeetako laguntzaileak izan ditugu. Hala ere, onartu behar dugu, hainbat arrazoi dela eta, espezialista ospetsu guztiak ezin izan direla lan honetan egon.

Hortaz, Biozuzenbideko eta Bioetikako Entziklopedia hau taldean egindako lana da, di-

ziplina artekoa eta askotarikoa, autoreei eman zaizkien aginduak lanari batasun bat emateko behar direnak baino ez baitira izan. Bidezkoa da, hemen eta orain, gonbidatu ditugun autore guztiei erakutsi duten gogoia, ahalegina eta esku-zabaltasuna aitortzea, halako lan batean laguntzea onartu dutelako. Izan ere, bakarkako lana garrantzitsua eta erabakigarria da azken helburua iristeko. Lan honek balio erantsi eta aberasgarri bat du, etengabe elkarreraginean dauden talde-lan baten fruitua baita.

Horregatik bada, uste dugu laster argia ikusiko duen Entziklopedia honek gure kulturaren esparruan beharrezkoa den asmo handiko zeregin aitzindari bat beteko duela.

Carlos María Romeo Casabona

Katedrako Nobedadeak

Mintegia: «Un asunto pendiente: el desarrollo de la normativa sobre biobancos»

Urriaren 31n, Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrak mintegi bat izan zuen, «Un asunto pendiente: el desarrollo de la normativa sobre biobancos» izenburupean. Euskadiko Ikerketa Klinikoko Etika Batzordearekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntza antolatuta zen. Carlos María Romeo Casabona irakasle doktoreak zuzenduta eta Aitziber Emaldi Ciriñon irakasle doktoreak koordinatuta, mintegian parte hartu zuen Augusto Silva doktoreak, Osasun eta Kontsumo Ministerioko Terapia Aurreratuen eta Transplanteen zuzendari nagusiak, «Nuevas técnicas en la investigación con células madre. Células iPS» izeneko hasierako hitzaldia eskaini zuelarik. Hitzaldi horren ondoren hasi zen lehenengo saioa. Bertan, honakoak izan ziren parte hartzaileak: Víctor González Rumayor, Madrilgo Carlos III.a; Sergio Romeo Malanda irakasle doktorea, Las Palmas Kanaria Handiko Unibertsitatekoa; eta Lorena Donoso Abarca, Txileko Unibertsitateko Zuzenbide Informatikoko Ikasketa Zentroko zuzendaria. Eta eman zituzten hitzaldiak hauek izan ziren, hurrenez hurren: «Biobancos en España. Interés y panorama general», «Biobancos y colecciones. Justificación de la diferenciación» eta «Regulación de los biobancos en Derecho comparado».

Bigarren saioan, honakoak izan ziren parte hartzaileak: Ángel Igualada jn., Madrilgo Erkidegoko Datuak Babesteko Agentziako Fitxategien Erregistroko eta Informazio Sistemen zuzendariordeonoko nagusia; Roberto Bilbao dk., BIO Fundazioa osasun ikerketetako koordinatzailea. Eman zituzten hitzaldiak honakoak izan ziren: «Derechos de los sujetos y biobancos» eta «Creación, organización y acreditación de biobancos».

Azkenik, mahai-ingurua «Controversias en la aplicación de la esperada Ley de Investigación biomédica» gaiaren ingurukoa izan zen eta honakoak izan ziren parte hartzaileak: Guillermo Alcalde Bezhold dk., Gasteizeko Santiago Ospitaleko CEICeko idazkaria; Felipe Aizpuru Barandiaran, Gasteizeko Txagorritxu Ospitaleko CEICeko idazkaria; Txema González de Castro, Euskadiko CEICeko kidea; Iciar Alfonso Farnós, Euskadiko CEICeko idazkaria; eta Pilar Nicolás Jiménez dk., Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedrako ikertzailea.

Europako «Poseidón» proiektuaren batzarra

Iñigo de Miguelek Europako «Poseidón» Proiektuaren jarraipeneko batzarrean parte hartu zuen 2008ko abuztuaren 25etik 27ra Parisen. Ka-

tedrak lideratzen duen *Work Package* delakoaren aurrerapen globalak eta lorpenak azaldu ziren bertan, baita etorkizunari begirako erabakiak hartu ere.

Europako «Xenome» proiektuaren batzarra

2008ko irailaren 9an eta 10ean Europako Xenome proiektuaren urteroko batzarra izan zen Bruselan. Proiektu honetan Europar Batasuneko estatu kiderik gehienetako erakunde akademikoak eta ikerketa zentroak parte hartzen dute.

«Privileged» Europako proiektuaren workshop-a

2008ko azaroaren 13an eta 14an «Privileged» Europako proiektuaren bigarren *workshop*-a izan zen. Proiektu honetan Europar Batasuneko estatukiderik gehienetako ikerketa zentro eta erakunde akademikoek parte hartzen dute, zein neurritan dauden norbanakoen eskubideak eta askatasunak eraginda —bereziki, intimitate eskubidea— informazio genetikoak eta ikerketarako biobankuak erabiltzeari dagokionez. Aipatutako *workshop* horretan aztertu zen zelan ulertzen eta babesten dituzten eskubide horiek gaur egun dauden araudiek —batez ere, datuak babesteari buruzkoak— eta zelan garatu ahal izango lirakekeen, beharrezkoa izanez gero, Europar Batasunean.

LATINBANKS Proiektuko ikertzailekideen bigarren bilera Mexikon

Uztailaren 4an eta 5ean, LATINBANKS proiektuko ikertzailekideen bigarren bilera izan zen Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko Ikerketa Juridikoen Institutuan. Horretarako, lehenengo *bazkideen bileraren aurreko saio bat egin zen, jende guztiarentzat zabalik egon zena*, eta, ondoren, *bazkideen barne bilera bat*, proiektuko kideek bakarrik parte hartzekoa.

Jende guztiarentzat zabalik egon zen saioak, uztailaren 4ko goizekoak, izenburu hau zuen: «Muestras biológicas y biobancos para investigación biomédica. Estado actual y retos del futuro». Bertan proiektuko kideek, gonbidatutako adituek eta jendeak oro har ekarpenak egin zituzten. Saioa Emilssen González de Cancino doktoreak moderatu zuen eta Guillermo Soberrón irakasle doktoreak, Mexikoko Bioetikako Batzorde Nazionalekoak, aurkeztu zuen. Jarduera honetan, Carlos María Romeo Casabona, Ingrid Brena Sesma, Gerardo Jiménez, Clara Godorezky eta Jürgen Simon irakasleek eman zituzten hitzaldien izenburuak hauek izan ziren, hurrenez hurren: «*Marco Jurídico Internacional*», «*Reporte de Biobancos en México*», «*Colección y manejo de muestras biológicas en el Instituto Nacional*

de Medicina Genómica de México», «*Biobancos y bancos de células de cordón umbilical: aspectos comunes y específicos relativos a la investigación en las implicaciones sociales, éticas y de regulación*» eta «*Aprovechamiento y reparto de beneficios económicos*».

Bestalde, *bazkideen barne bilera* —uztailaren 4ko arratsaldean eta uztailaren 5ean— Carlos María Romeo Casabona eta Jürgen Simon irakasle doktoreek eta proiektuaren koordinatzaileek inauguratu zuten eta Lorena Donoso Abarca (Txileko Unibertsitatea) irakasleak moderatu zuen. Biobankuen funtzionamendua eta sistema juridikoa Europar zelakoa den aztertu zuten Heike Bockmannek eta Jürgen Simonek (Alemaniako Lüneburg-eko Unibertsitatea), Myriam Blumberg-Mokryk (Frantzia), Carlos María Romeo Casabonak (Espainiako Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra), eta Sónia Fidalgok (Portugaleko Coimbrako Unibertsitateko Zuzenbide Biomedikoko Zentroa).

Ondoren, Latinoamerikako bazkideek euren sistema juridikoez dituzten zailtasunak azaldu zituzten zientziaren aurrerakuntzak eta ikerketa biomedikoetarako biobankuen jardunean sartuta dauden eragileen interesen errespetuarekin bateratzeko momentuan; lan horretan aritu ziren Carlos Valerio (Costa Ricako Zuzenbide medikoko Elkarteak), Ingrid Brena Sesma (Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoa), Emilssen González de Cancino (Kolonbiako Externado Unibertsitatea) eta Lorena Donoso Abarca (Txileko Unibertsitatea) irakasleak. Azkenik, ondorioen irakurketa egin zuen Emilio José Armazak, izan daitezkeen irtenbideen, funtzionamendurako gomendioen eta proiektuan parte hartzen duten herritarreentzako tresna juridikoak optimizatzeko egin beharreko lanaren inguruan eztabaidatu ondoren.

Azkenik, kideek adostu zuten hurrengo bilera Buenos Airesen (Argentina) eta Lüneburg-en (Alemania) izango direla. Bilera horietan jarraitu egingo dute Latinbanks proiektuan planteatutako helburuen inguruan lan egiten, horrela Latinoamerikako gizarteak ikerketa biomedikorako lagin biologikoen bankuetako lana garatzen jarraitzeko.

Ikerketa proiektu berri bat onartua

«Delincuencia Económica. Nuevos instrumentos jurídicos y económicos» ikerketa proiektua onartu du Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak 2008-2010 aldirako. Ikerketa proiektu horretan La Lagunako Unibertsitateak eta Euskal Herriko Unibertsitateak parte hartzen dute. Ikerketa nagusia Carlos María Romeo Casabona doktorea da.

Katedraren argitalpenak

Revista de Derecho y Genoma Humano/Law and the Human Genome Review. 2008ko uztaila-abenduari dagokion zenbakia, 29.a: *Los derechos sucesorios del hijo nacido de fecundación postmortem* (Iniesta); *Human Tissue and Cells Regulation in Spain: looking at Europe to solve inner contradictions?* (Alkorta); *El embrión humano después de Dolly: Nuevas pautas para nuevos tiempos* (de Miguel); *La nueva Ley Orgánica 10/2007, de 8 de octubre, reguladora*

de la base de datos policial sobre identificados obtenidos a partir del ADN. Aspectos procesales (Reverón); *New legal developments in xenotransplantation: the spanish approach* (Romeo / Urruela); *Consentimiento, biobancos y Ley de investigación biomédica* (Seoane / Casado); *Investigaciones con células troncales embrionarias en Brasil y la (In)constitucionalidad del artículo 5.º de la Ley de Bioseguridad (Parte II)* (Freire De Sá / Luna); *The regulation of biobanks in Spain* (Nys).

Iñigo de Miguel Beriain, *La clonación, diez años después*

Monografía honek jasotzen du zelulen nukleoaren transferentzien garapenak gure gizarteetan izan duen, duen eta izango duen eraginari buruzko hausnarketa, bai ama zelulak ekoizteko era berrien bidez, bai, zuzenean, gizakiak klonatzearen bidez.

Katedrako kideen jarduerak

Carlos María Romeo Casabonak honako lan hauek argitaratu ditu: «La Globalizzazione e il ruolo dinamico dei diritti umani in relazione ad una prospettiva comune per la biotecnologia umana», in *Un Diritto per il futuro*; «De los delitos informáticos al cibercrimen», *Revista da Faculdade Mineira de Direito*; «La expansión del Derecho Penal en el campo de la biotecnología humana: últimas tendencias», in *Cuadernos de Derecho Judicial*; «La Ley de Investigación Biomédica: un nuevo mapa Normativo para la Investigación Científica en el sistema nacional de salud», *Derecho y Salud*. Gainera, estatu eta nazioarte mailako hainbat ekitalditan parte hartu du hizlari gisa: «Bioética e Direito», «A estrutura monista do dolo: uma visao crítica», «A investigação com as células-tronco e técnicas de clonagem: o debate jurídico atual», *Seminário Internacional do Instituto Brasileiro de Ciências Criminais, Brasil*; «Derechos Humanos y diversidad cultural», *Defensoría General de la Nación, Argentina*; «El delito imprudente», *Argentina*; «La Responsabilidad penal por manipulación genética», «Imputación penal objetiva y la responsabilidad médica-sanitaria», *Kolombia*; «Derecho Penal y Libertades en la Red», «La discusión actual sobre el contenido del dolo», *Argentina*; «Ciencia y Sociedad: Ejes de la transformación universitaria», *Espaniako Asociación Alexander Von Humboldt Elkarteak antolatuta, Euskal Herriko Unibertsitatea*; «Dilemas éticos y jurídicos al final de la vida»; *Arabako Foru Aldundiak antolatuta, Gasteiz*; «Derechos y libertades en Internet: los límites del Derecho Penal», *Valladolid*; «Leyes genéticas y leyes humanas: control científico y penal de la vida», *Oviedoko Unibertsitatea, Espainia*; «Actuación médica y eutanasia», *Andaluziako Nazioarteko Unibertsitateak antolatuta*; «Leyes genéticas y leyes humanas: control científico y penal de la vida», *Universidad de Oviedo, Espainia*.

Aitziber Emaldi Ciriónek honako hitzaldi hauek eskaini ditu: «Las acciones de wrongful birth and wrongful life», A Coruña; «Aspectos jurídicos da clonación en da investigación con embrións», Carlos Casares Fundazioak antolatuta, Vigo. Halaber, hainbat artikulu ere idatzi ditu: «De la intimidad genética al derecho a la protección de datos», *Agencia Española de Protec-*

ción de Datos, inprimatzen, 2009; «Human biological samples in research: juridical perspective», *Bioethics Global & Social aspects*; «La investigación biomédica: Pilares sobre los que se asienta», *Los avances del Derecho ante los avances de la Medicina*. Esther Ibáñezek ikasketak aurreratuen diploma eta ikertzeko gaitasuna lortzeko tesina zuzendu du: «Consentimiento informado en el ámbito biomédico».

Leire Escajedo San Epifaniok *Bioteknologiaren garapen osasuntsu eta jasangarria* argitaratu du, Elhuyar. «Reproducción Humana, Medicina genética y Derechos Fundamentales», *Ética de la vida y de la Salud: su problemática biojurídica* delakoan, Sevillako Unibertsitatea. Bestalde, «Clonación humana, eugenesia y biobancos en la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea: ¿un acierto?» hitzaldia eskaini du EHUKo Konstituzio Zuzenbideko eta Teoria Politikoaren Historia Sailak antolatutako Itunen Erreformatari buruzko Nazioarteko Mintegian, iraila. Lau asteko ikerketaldia egin du Max Planck Institutuan.

Sergio Romeo Malandak «Minoría de edad y aborto: algunas consideraciones sobre consentimiento y confidencialidad» lana argitaratu du, *Los Avances del Derecho antes los avances de la medicina*. Horrez gain, honako hitzaldiak eskaini ditu: «Desidia del legislador y retroactividad de la ley penal», «*Viejas y nuevas tendencias del pensamiento jurídico penal contemporáneo*», Peru; «Manipulación genética, culpabilidad y herencia», Peru; «¿Protege el Derecho penal adecuadamente los intereses de los consumidores?», *Seminario de Derecho Penal*, Peru. «Viejas y nuevas tendencias del Derecho Penal y la Criminología» Zigor Zuzenbideko Ikasleen Jardunaldi Akademikoko Epaimahaiko presidente ere izan da, Peru.

Pilar Nicolás Jiménez *Hereditary Cancer in Clinical Practice* aldizkariko Batzorde Editorialean sartu da. «Obtención y utilización de datos genéticos en la contratación de seguros. La difícil concreción de la prohibición de discriminación» lana argitaratu du, *Los Avances del Derecho ante los avances de la medicina* argitalpenean. Honako hitzaldiak ere eskaini ditu: «Biobancos y consentimiento informado en el ámbito de la Ley de In-

vestigación Biomédica», Conselleria de Sanitat, Valentzia; «Aspectos prácticos en el actual marco jurídico en la investigación con biomarcadores», Menéndez Pelayo Nazioarteko Unibertsitatea, Santiago de Compostela; «Use of biological samples in scientific research. Consent and Biobanks». Perspectivas de investigación populacional, Oporto; «Los principios inspiradores de la legislación española sobre investigación en biomedicina y los problemas no resueltos por la ley 14/2007», Santiago de Compostelako Unibertsitatea.

María Jorquik Madrileko Datuak Babesteko Agentziaren eskuliburuari buruzko kritika bibliografiko bat argitaratu du: in *Revista de Derecho y Genoma Humano*. «El diagnóstico genético preimplantatorio: breve apunte comparativo dentro del marco legal en Italia y España» ere argitaratu du: *Los avances del Derecho ante los avances de la Medicina*. «Privacy protection in research using genetic data and bio-banks provided by the law of data protection» txostena ere prestatu du, eta Second PRIVILEGED workshop-ean aurkeztu zuen, Coimbran.

Iñigo de Miguel Beriainek «El poder en la era de la Globalización» monografiak argitaratu ditu. Hiru kapitulu idatzi ditu UNEDeko ikasleentzako Zuzenbidearen Filosofiako Eskuliburuarako; Universitas argitaletxeak plazaratu du «Bioética, Derecho, Medicina y Ciencias de la Salud: campos de actualización de los Derechos Humanos» ponentzia ere eskaini du, UNED. «El concepto de embrión en la Ley 14/2007, de 3 de julio, de Investigación Biomédica» testua ere argitaratu du, in, *Los avances del Derecho ante los avances de la Medicina*.

Emilio José Armaza Armazak, Zuzenbideko doktoregoko ikerraldia gainditu du eta 2008ko azaroan Bioetikako Unibertsitate arteko Masterraren III. edizioako irakasle gisa hasi da. *Digesto de Derecho penal peruano, Fuentes Bibliográficas* delakoaren lehen liburukia argitaratu du. Beste artikulu hauek ere: «La cuestión del bien jurídico en el delito de clonación», de Miguel Beriainekin batera, in *Temas de Derecho Penal*, Arequipa; «Consideraciones generales en torno a la responsabilidad penal del médico», in *Los avances del Derecho ante los avances de la Medicina*.

Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra

Kideak:

Carlos María Romeo Casabona dk. irak. (zuzendaria)
Aitziber Emaldi Ciriónek dk. (aldizkako argitalpenen eta jardunaldien koordinatzailea)
Leire Escajedo San Epifanio dk. (graduondoko ikasketen koordinatzailea)
Pilar Nicolás Jiménez dk. (ikerketari proiektuen koordinatzailea)
Sergio Romeo dk. (nazioarteko harremanak)
Iñigo de Miguel dk. (ikertzailea)
María Jorqui Azofra dk. (ikertzailea)
Emilio Armaza jn. (ikertzailea)

Fátima Flores Mendoza dk. (aholkularia)
Ulises Hernández Plasencia dk. (aholkularia)
Amelia Martín Uranga dk. (aholkularia)
Esteban Sola Reche dk. (aholkularia)
Asier Urruela Mora dk. (aholkularia)

Leire Larrazabal Laradogoitia (idazkaria)

Posta kutxa, 1
48080 Bilbao
Tel.: + 34 94 413 92 87
+ 34 94 445 57 93
Faxa: + 34 94 445 55 13
Email: llarraza@genomelaw.deusto.es
www.catedraderechoygenomahumano.es
Boletín hau Deustuko Unibertsitateko itzulpen Zerbitzuak itzuli du